


# SARRERA



Gure inguru naturalaz gozatzeko grina, umetatik sustatu izan didate. Ez zen egun libre askorik izango, tartean mendi bueltaren bat ez zegoenik. Inguruko baso, erreka, tontor eta paisaia guztiak, nire baitan iltzatuta geratu ziren beraz.

Garai bertsuan abiatu nuen marrazkiaren bidea ere. Eskolako koadernoetan, irakasleek etxerako karpetetan biltzen zituzten kartulinetan edo etxean aurkitzen nituen folioetan egiten nituen nire margolanak.

Mendizalea eta marrazkilaria izan naiz, beraz, betidanik. Marrazkilaria eta mendizalea, eta denborak ez ditu bide horiek banatu. Are gehiago, bizitzak erraz jakin du bide horiek uzartu eta bateratzen.

Marrazkilari eta ilustratzaile profesional gisa 6 bat urtez jardun ondoren, akuarela teknikara gerturatzeko harra sortu zitzaidan. Eta zer hoberik koaderno bat hartu eta horrenbeste maite dudan inguru natural horretara ateratzea baino?

Akuarelak natura beste begi batzuekin behatzen irakatsi dit; denbora lasai hartu eta inguru naturalarekin bat egiten. Akuarelaz betetako bost koadernoren ondoren neure burua hobeto ezagutzeko ere balio izan dit esperientziak. Pazientzia izaten irakatsi dit akuarelak, ezustekoen aurrean bide barriak

probatzen, kontrolatu beharrari atzamarren artetik alde egiten uzten eta emaitzarekin batera bidearekin gozaten.

Akuarela teknika zailtzat hartu izan da sarri eta egia esan niri ere eman izan dit buruko minik. Gaur egun ematen dizkit eta etorkizunean ere emango dizkidala ez dut zalantzarik. Aurrez aipatu bezala, kontrolatzen zaila den teknika da. Izenetik ondoriozta genezakeen gisara ura da teknika honen oinarria eta ura kontrolatzea sekula ez da erraza izan. Hala ere uraren portaera uler dezakegu eta haren jokaerak gure probetxurako erabiltzen saiatu.

Hurrengo orrialdeetan akuarela teknikaren oinarritzko ezagutza batzuk partekatuko dizkizuet eta baita aire zabalean aritzerakoan kontuan har ditzakezuen gomendio batzuk ere.



# MATERIALA





## ● PAPERA

Akuarela teknikan, paperak berebiziko garrantzia hartzen du eta merezi du arlo honetan arreta apur bat jartzea. Kontuan hartu gure irudia, gure artelana, material horri lotuta geldituko dela, hori izango du euskarri. Beraz, gure lanaren emaitza txukun gelditu dadin nahi badugu, iraun dezan nahi badugu, ganorazko paper bat erabili beharko dugu.

Paper motei buruz ari garenean, gramajeari eta paperaren konposaketari buruz hitz egiten dugu. Hau da, paperaren pisuari eta papera eginda dagoen materialari buruz ari gara.

Gure etxeetan izan ohi dugun folio arrunt batek 80 gr izaten ditu normalean metro karratuko ( $80 \text{ gr/m}^2$ ) eta zelulosaz egina izaten da. Akuarela teknikarako, ordea, paper mota hori ez da gomendagarria. Folio arruntak arinegiak izaten dira teknika hezeetarako (ura erabiltzen den tekniketarako) eta berehala tolesten dira akuarela edo tenperaz margotzen hasten garenean.

Margotzean ura erabiliko dugunez, beraz, paperak ur hori hartzeko edo ur horri eusteko adina pisu izan beharko du, lanean ari garen artean tolestu ez dadin. Paper moten eskaintza zabala dago merkatuan bai pisuari eta baita konposaketari dagokienez ere. Dena dela, hona hemen oinarrizko azalpen bat:

Neurri txikietako akuarela-lanetan (A5, A4, A3)  $250 \text{ gr/m}^2$  edo  $300 \text{ gr/m}^2$ -ko papera izan ohi da erabiliena. Formatu handiagoetan paper sendoagoak ere erabil litezke. Konposaketari dagokionez, % 100 kotoiz osatutako papera hobetsiko dugu, material horrek eskaintzen duen erresistentziagatik. Kotoiak ongi eusten die pintzelen urratuei, ur-orban handiei eta baita zuzenketa-saiakerei ere.

Behin puntu honetara helduta paperaren ehundurari buruzko aipamen labur bat egin nahi nuke. Akuarela-paperak, orokorrean, hiru ehunduratan banatzen dira: satinatua, pikor xeheduna edo pikor larriduna.




### ***Satinatua:***

Paper hau leun-leuna da, batere pikorrik gabea. Nik neuk nahiago izaten dut, nire lanetan, paperaren ehundura nabaritu dadila eta, hortaz, ez dut paper mota hau ia erabiltzen. Dena dela, aukera ona izan daiteke xehetasun handiko margolan bat egin nahi badugu.




### ***Pikor xeheduna:***

Pikor xeheak izaten ditu paper honek eta neurri txikietan aritzen naizenean mota honetako papera izaten da gehien erabiltzen dudana. Pikor honek errealismotik aldendu eta kutxu inpresionista ematen die gure lanei. Gustatzen zait akuarelaren urak paperaren ehundurarekin jolastu eta ehundura ezberdinak sortzea.



### ***Pikor larriduna:***

Paper mota hau formatu handietan erabiltzen dut normalean. Pikorren tamaina handiagoa denez, neurri txikietan lagundu baino enbarazu gehiago egingo lidakeela iruditzen zait. Neurri handian, ordea, plazera da paperaren materialtasun horrek sortzen duen ehundura eta artelanari ematen dion presentzia deskubritzeko.



Azken aipamen hauek, nire esperientziatik garatutako iritzi batzuk baino ez dira eta, beraz, artista bakoitzak bere lanari eta estiloari hoberen egokitzen zaion paper mota aurkitu beharko du. Aprobata egitea besterik ez dago gogokoen zer dugun deskubritzeko.







## ● AKUARELAK

Margoaren oinarria pigmentua da. Kolore ezberdinetako hauts hauek sustantzia ezberdinekin nahasten dira margo mota ezberdinak lortzeko. Olio-margoak, adibidez, pigmentua linazi-olioarekin nahastuta lortzen dira; margo akrilikoak, pigmentua kola edo latexarekin nahastuta sortzen dira, eta akuarelak zein tenperak, pigmentua Arabiako gomarekin nahastuta. Arabiako goma oso erraz urtzen da uretan eta, beraz, esan liteke akuarela teknikan ia-ia pigmentua eta ura baino ez ditugula erabiltzen.

Marka eta kolore-tonu ezberdinak aurki ditzakegu merkatuan, baina orokorrean, hiru modutara saltzen dira akuarelak. Formatu likidoan, "godet" edo ontzitzoetan eta tuboetan.

Akuarela likidoak ez dira gomendagarriak. Ez dira batere erosoak garraiatzeko orduan eta margotzean ere zaila izango da ehundura lehorrak eta pintzelkada opakoak egitea. Akuarela-ontzitzoak edo "godetak" izaten dira ohikoenak eta baita erabilgarrienak ere bidaia-tu behar dugunetan. Dena dela, tubo formatuan aurkitu ditzakegun akuarelekin margoa formatu ezberdinetan erabiltzeko aukera zabalagoa eskainiko digute. Azken akuarela horiekin margoa modu dentsoenetik hasi eta urez nahi beste nahasteraino erabil dezakegu, aurreko bi formatuek eskaintzen dizkiguten tonuak zein tonu askoz bizi eta opakoagoak ere lortu arte.

Aukera erabilgarrienetariko bat metalezko akuarela ontzi bat eta "godet" hutsak erostea izan liteke. Aparte, akuarelak tubo edo hodi formatuan erosi eta horiekin "godetak" bete. Horrela, aire zabalera goazenetan garraiatzeko errazak egingo zaizkigu akuarelak.



## • PINTZELAK

Neurri, marka eta modelo ezberdinetako pintzelak aurkitu ditzakegu merkatuan. Akuarela teknikarako, ordea, ezaugarri garrantzitsuena pintzel hauek xurgatu eta mantentzeko ur kopurua izango da. Azalera handiak jarraian margotu ahal izateko beharrezkoa izango da pintzelek ura mantendu ahal izatea. Ura azkarregi galtzen duten pintzelak erabiltzen baditugu, nahi genukeen baino sarriago jo behar dugu berriz ere gure paletara. Modu horretan, desio ez ditugun orbanak ager daitezke eta ez da erraza gure lanean hezetasunaren kontrola bermatzea.



Pintzelak xurgatzen duen urarekin batera, pintzelaren forma ere garrantzitsua da oso. Pintzelak borobilak edo zapalak izan daitezke eta luzera eta forma ezberdinetako punta eduki: leuna, konikoa, katu-mihiaren formakoa, zirkuluerdia... Ile sintetikoko pintzel borobil malgu xamarrek erabiltzen ditut normalean. Baina honetan ere, aukera oso pertsonala da. Margolan bakoitzerako, atal bakoitzerako, pintzel bat edo bestea izan daiteke egokiagoa.



Aire zabalean zuzenean margotzeko ur-depositua integratuta duten pintzelak ere badaude. Formatu txikietan, nahiko erabiliak dira eta hainbat dira horien aldeko hautua egiten duten autoreak. Pintzel horien alderdi positiboa urarentzako potoric eraman beharrik ez izatea da. Materialaren pisua eta bolumena kontuan hartu behar denean aukera azpimarragarria da guztiz. Aspektu negatiboen artean, ez dira neurri handiko lanak marrazteko egokienak eta zaila da pintzel horiekin akuarela-pigmentu askoko zati ilun edo opakoak margotzea. Pintzelak ur-depositua une oro erantsita duenez, trazu lehorrak egiterakoan ez dira aproposenak. Alderdi positibo eta negatiboak balantzan jarrita, nire materialaren artean sartzen ditut, nahiz eta normalean ez ditudan erabiltzen. Dena dela, suerta daiteke haiek erabili beharreko baldintzak izatea.